



Hotzarekin
iritsi dira
Sanandresak



h e m e n
DISEINU ALTZARIAK

URDANETA KALEA, 56 • 20240 ORDIZIA

TFNOA./FAXA: 88 46 41

ERAKUSKETA ERABERRITUA, BISITA GAITZAZU

SEUR

☎ 902 10 10 10 ☎

Fakturazio lekua:
AUTOETXE C.B.

Salbatore auzoa

10. poligonoa, 18. pabiloia
BEASAIN

ORDUTEGIA: 9:00etatik 13:00 etara
15:00etatik 18:45era

Eskaintza:

*iragarki hau eramanda
5 kilorarte dohainik
Gipuzkoa barruan.*

Martxoaren 15erarteko balioa du eskaintzak.

VENTANAS SAN MIGUEL

Mendeurren etorbidea, 2
(Sarrera Nafarroa etorbidetik)
Tl. 88 91 53 Beasain

*Zure ongizatea
babesteko gande*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**

SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK.

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:

Goierriarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1

(Postetxe gainean)

124 posta-kutxa

20240 Ordizia

Tfnoa: (943) 88 96 12

Faxa: (943) 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Jon Ordoñez, Ur-
ko Irastorza, Xanti Etxeberria,
Maider Azurmendi, Saroi Jaure-
gi, Iñaki Gurrutxaga, Gabino Mu-
rua, Josune Amondarain, Rufino
Iraola, Kizkitza eta Izaskun Ba-
rrenetxea.

Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Ona grafikak
(Artika - Nafarroa)

Tirada: 7.300 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**Goierriko hainbat enpresa hasi
da hondakinak gutxitzen**

Sasieta Mankomunitateak orain dela 3 urte ekin zion, eskualdeko enpresek bere produkzioan zituzten hondakinak, emisioak eta isurketak gutxitzeko helburua duen planari. Goierriko eta Urola Garaiko 18 enpresek hartzen dute parte. Enpresekin elkarlanean Sasieta Mankomunitatea, Ihobe, Goieki eta Ugasa ari dira. 1996an ingurugiroko azterketak egin zituzten egoera ezagutzeko. Azterketa honen ondorioz, enpresa bakoitzari zegozkion neurriak proposatu zitzaizkion eta 1997an neurri hauek garatu ziren. 1998an, lehenengo emaitzak dagoeneko ezagutu dira eta Sasieta teknika-rien esanetan emaitzak nahiko onak izan dira. Hiru urte hauetan egindako lanarekin liburuxka bat atera du Ihobek. Liburu honetan 34 adibide nabarmenenak agertzen dira, beti ere, ekoizpen garbiaren ikuspuntutik.

Liburuan azaltzen diren emaitza esanguratsuenak honela laburbil daitezke: Ingurugiroko azterketak egin ondoren, 108 neurri proposatu ziren eta hauetatik dagoene-

ko %75 aurrera eraman da. Goierri eta Urola Garaian ur industrialak 335.000 m³an gutxitu dira; hondakin solidoetan ere gutxitze nabarmena gertatu da. Adibidez, hondakin inerteak 3.400 tonatan gutxitzea lortu da, eta toxikoak direnak 390 tonatan. Ekonomiko aldetik ere enpresek, urteko 150 milioi aurreztu dituzte.

Sasietaren esanetan, emaitzak onak badira ere, garrantzitsuagoa da enpresen pentsamolde aldaketa: 'Enpresa garbiena ez da gehiena garbitzen duena, gutxienean zikintzen duena baizik'. Lehengaietatik hasi eta hondakin azken gestioraino iritsiz, antolakuntzatik pasatuz, ekoizpeneko prozesuetatik eta produktua bera ere aztertuz lortzen da hori.

Orain dela urte batzuk Kalitate sistemak (ISO 9.000 arauak) ezartzen hasi ziren eta Sasietak adierazi digunez, ingurugiro sisteman ere arauak jartzen hasi dira (ISO 14.000 eta EMAS) eta etorkizunean lehiakortasunerako abantaila izango dira.

BOTA BERTSOA



Joxe Ramon Elortza

*Goierriko bertso-eskolako
ikasle ohia*

San Andresak

*Doinua: Hamarreko
handia*

Saltoka dantzan hasi daitezke hotzez dardarka daudenak iritsi dira San Andres jaiak herrietako azkenak Harrikalari eta kanpotar umorez gainezka denak gurea nahizta ez izan arren munduko festa onenak ziur direla beste inongoen inbidirik ez dutenak.

Ziklo krosaren emozioa eta disfrazen dizdira herri kirol ta bertsolariak nahi hainbat gauza badira. Ordu txikitik etengabeko gau txorien kalejira Pionetikan, Usoaraino ta handik zubi azpira ondo pasatu nahi badezute zatozte Ormaiztegiara.

*Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Hi. Hirekin.

kutxa batean aurkitzea espero duzun guztia (eta inoiz uste izango ez zenukeena) Gaztekutxan aurkituko duzu. Pertsonengandik hasita. Guregana hurbiltzen zarenean edo deitzen diguzunean, berehala konturatuko baitzara, jende jator askoarekin ari zarela. Parez pare hitz egingo dizun jendea. Hainbat ideia emango dizkizuna, hurbiletik hunkiru bai baina poltsikoa apenas ukitu dizuten ideiak, guztiak ere. Zeuk eskatu. Zeure esanetara gauzkazu.

www.gaztekutxa.net



Hi. Hirekin.

Tú. Contigo.

TXANDAKA

Ertamerika triste dago


Ertamerika triste dago. Kopeta zimurturik, begirada zorrotza luzatzen digute; betiko ezbeharraren ondorioa, oraingoak areagotuta. Ama Naturari bota diogu errua, baina ... kasualitatea! Banekin natura jakintsua zela; ez nuen uste, ordea, horretaraino iritsi zitekeenik, hain diskriminatzailea zenik, lehendik gaizki daudenak zigortu baititu berriro ere. Ez dezagun geure burua engaina. Mitch-ek ez du egin logikoa dena baizik: ahulen zegoen tokitik erasan dio untziari. Mitch-ek txikizio beldurgarriak egin ditu, egin zitzaizkeen tokian bakarrik, ordea. Handi jendearen etxerik ez du bisitatu edo, bisitatu badu ere, ez du irauli; ez Mitch-ek aberatsei begirunea dielako, haien etxeak sendoagoak direlako baizik.

Hunkitu gara, benetan, irudiak ikusita; orain arrainak banatuko dizkiegu. Hori ere ondo dago, arrantzan irakastea eta, batez ere, arrantzan egiteko medioak ipintzea ez baita batere erraza. Alabaina, estruktura-aldaketarik gabe nekez aterako da Ertamerika zuletik. Demokrazia politikoa, inportantea izanik ere, ez da aski, ezta programa ekonomiko egokiak bakarrik ere; ez dute fruiturik eman-go, estruktura sozialak aldatu ezean. Hirugarren Munduko demokrazia askok honako irudi honen antza du: "oilategi librean azeri libre". Inolako kontrol eta erregulazio gabeko merkatu lege basatiak gutxi batzuen poltsikoak ederki berotu eta gehiengoa miseria gorrian murgiltzea dakar. Europak benetan lagundu nahi badio, dela mailegu biguinak emanez dela zorraz kitoan utziz, baldintzak ipini behar dizkie hango gobernu eta ekonomiaren jabe direnei: ondasunen banaketa juxtuagoa, nekazaritza eta fiskoaren erreforma, gizarte segurantzaren bultzatzeko konpromisua, osasun eta hezkuntzarako aurrekontuak gehi ditzatela, etab. Bestela, hemendik iritsi zaizkien milioi guztiak, asko izanda ere, gure amona zenak bonbatxo zaharrei emandako adabakien pare geratuko dira.

Rufino Iraola



Zer egiten duzu San Andresetan hotza kentzeko?



Iker Abasolo
16 urte, ikaslea
ormaiztegiarra

Urtero hotzak egoten gara, baina trago batzuk hartuta berotzen gara. Inguruan fetxa horretan ez da festarik izaten eta jende asko etortzen da, jendeak festa gosea izaten du nahiz eta hotz egin.

Iker Arratibel
18 urte, ikaslea
ormaiztegiarra

Hotza egiten du bai, baina girotu eta berotu nahi izanez gero, tabernetan giro ona egoten da. Jende asko etortzen da, baina hotzagatik alde egiten duenik ere bada.



Jon Karmona
16 urte, langilea
ormaiztegiarra

Tabernaz taberna ibiltzen gara berotzen eta neskatan ere saiatzen gara berotzeko. Giro ona egoten da trago batzuk hartuta.

✓ Aholkularitza juridikoa
✓ Entrepresa zerbitzuak
✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel./Faxa: 943 16 21 92
Kale Nagusia, 2 BEASAIN

LABE - LAN S.L.

Labe eta kaldera refraktarioen konponketa

☎ 943 88 95 95 Faxa: 943 88 16 39

Zelai Poligonoa ORMAIZTEGI

ITXUNE ERRETEGIA



Gazte giroa

- Taberna musikala. Larunbat gauetan karaokea
- Etxeko sukaldaritza
- Eguneroko menua 950 pzta.
- Pintxo, ogitarteko eta ifernuko txorizoa

Gabirialde, 14 ☎ 943 88 73 51 - 943 88 89 92
ORMAIZTEGI

ZINEA

GOIENIZ:

Abenduak 3, 'Nola egin amodioa emakume bati' laburmetraia eta 'Fotografiando Hadas', Usurbe antzokian, 21:00etan.

BEASAIN:

'Barrio', Ostirala 27: 22:15;; igandea 29: 19:30 - 22:15; astelehena 30: 19:30 - 22:15.

'No hay pelotas', Larunbata 28: 19:30 - 22:15

ORDIZIA:

'El show de Truman', Ostirala 27: 22:15; larunbata 28: 19:30; igandea 29: 19:30 - 22:15; astelehena 30: 19:30.

Fantasiatzko eta beldurrezko zinea. Larunbata 28: 22:00etatik goizeko 4etara.

'Fotografiando hadas'

Nick Willing
Britainia Handia (1997)

Istorio xume, liluragarri eta sentibera da 'Nick Willing' britainiarrak Photographing Fairies ('Maitagarriei argazkiak egiten') bere lehen luzean eskaintzen diguna, zentzumenak piztu eta bizipen sakon eta denboraz gaindikoak sorrarazten dituen istorioa.

Charles Castle argazkilaria emaztea galduko du ezkon biharamonean eta honen ondorioz bere bizitzak zentzua galduko du. Halako batean, maitagarriak agertzen diren amarrurik gabeko argazki bat erakutsiko dio Bea Templeton emakume misterioitsuak eta gertaera honek irudimezko mundu xarmagarri eta 'erreal' batean barneratuko du, bere bizimodu iluna nolabait argituko duena.

Ukazezinak film honek ematen dituen zine une ederrak, ikuslearen gozagarri. Izan ere, irudi on batek gauza asko iradoki ditzake.

BERTSOLARIAK

LAZKAO:

Abenduak 1, bertso-afaria Maizpiden, 20:00etan, Ekaitz Goikoetxea eta Ibon Karrera-ekin.

ORMAIZTEGI:

Azaroak 28, bertso-jaialdia, Zubipe kiroldegian, 22:00etan: A.M. Peñagarikano, X. Euzkitze, S. Lizaso, I. Murua, J.R. Elorza, M. Lujanbio eta A. Egaña. Gai-jartzailea: Joxerra Gartzia.

TXOTXONGILOAK

BEASAIN:

Abenduak 3, 'Sembo' Errusiako txotxongiloak, 11:00etan eta 15:00etan, Usurbe Antzokian.

ORDIZIA:

Abenduak 2, Bartzelona-ko 'La Fanfarra' taldearen, 'Caramante' lana, Herri Antzokian, 18:00etan.

Abenduak 3, Argentinako 'Chonchon' taldearen 'Los bufos de la matiné' lana, Herri Antzokian, 18:00etan.

HITZALDIAK

BEASAIN:

Abenduak 2, 'Autobabesa: segurtasuna eta prebentzioa' buruzko hitzaldia, Asmuben, 10:00etan.

Abenduak 3, 'Autobabesa: segurtasun eta larrialdietarako tresnak' buruzko hitzaldia, Asmuben, 10:00etan.

Abenduak 5, 'Autobabesa: su-hitzailgailuak nola erabili' buruzko hitzaldia, Asmuben, 10:00etan.

Abenduak 11, Euroari buruzko hitzaldia, Asmuben, 16:00etan.

ORDIZIA:

Abenduak 11, 'Emakumea eta osasuna' zikloaren barruan 'Hizkuntza: gizarte identitatearen ispilu' hitzaldia, 15:30ean, Barrenan.

Abenduak 14, 'Emakumea eta Osasuna' zikloaren barruan 'Jenero femeninoa eta osasuna' hitzaldia, Barrenan, 15:30ean.



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

AURRE ZITA
☎ 943 88 72 21
☎ 910 02 00 41
Oriamendi, 3 - 2. ezk.
BEASAIN

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



✕ LEIHOAK, ATE-
AK eta abar
✕ ESKAILERAK
NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

IKUSENTZUEZKOAK

IDIAZABAL:

Abenduak 3, Txema Sanchez eta Aintzane Egibarrek eskainita, 'Transandina 97', 19:00etan, Kultur etxean.

LAZKAO:

Abenduak 2, Manoli Barrenetxearen 'Namibia, Hegoafrika, Zinbawe eta Botswana' diaporama, Maizpiden, 21:00etan.

Abenduak 10, Josu Izagirreren 'Iparralde: Xiberutik itsasora' diaporama Maizpiden, 15:30ean.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Abenduaren 13ra arte, 'Beasaingo Baserriak' argazki erakusketa, Argizpi Argizaleen Elkarteak antolatutik, Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan.

ORDIZIA:

Abenduaren 5era arte, 'El arte de la Escritura' erakusketa, Barrenan.

Abenduaren 4tik 18ra arte, Jesus Mari Bearen pintura eta eskultura erakusketa, Barrenan.

VII. Aterpe Pintura lehiaketa

Beasaingo Aterpe tabernak VII. Pintura lehiaketa antolatu du. Erabiliko den teknika eta hartuko den gaia, partaideen aukera librean uzten dira. Artista bakoitzak lan bakarra aurkeztu dezake. Artelanaren neuririk handienak 1m x 1m izango dira. Artelana sinatu gabe egon behar du eta Aterpe tabenara (Ezkiaga Etorbidea, 3) eraman behar dira, abenduaren 5a baino lehenago. Artelanarekin batera eta itxitako kartazalean, egilearen datuak eta telefono zenbakia bidali behar dira. Saribanaketa abenduaren 12an egingo da. Saria: Aterpe tabernaren logotipoa brontzez egindako eskultura moduan. Aukeratutako lanak 1999an zehar, erakusgai izango dira tabernan bertan.

MENDI-IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Abenduak 13: Arkaitzera.

Ordiziako mendizaleak:

Azaroak 29: Finalistaren eguna.

Idiazabalgo mendizaleak:

Azaroak 29: Bianditz-Artikutza.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Salerosketak:

☐ Olivetti idaz-makina salgai. Prezio onean. Ia berria. 943882278 - 943882047.

☐ Yamaha Yz 250 C.L. motorra salgai. 1993. urtekoa. 943 881802.

☐ Trabesiako eskiak salgai. Egoera onean. 943 162222.

☐ 10 hilabeteko zezen limousina salgai. 943 800490.

☐ Beasainen J.M. Iturrioz kalean, lokala alokatu edo salduko nuke. 3 alde argitara ematen du. 68 m². 943 160237 edo 943 852818.

Lana:

☐ Neska bat behar da tabernan lan egiteko. Deitu 943 883180 telefonora.

☐ Begirale euskaldunak behar dira. Baldintza: 18 urtetik gorakoa izatea. 943 162366.

Bestelakoak:

☐ Edozein motako lanak pasatzen dira ordenagailuz, prezio onean. Isa. 943 881303.

Etxebizitzak:

☐ Pisia salgai Ordizian. 88 m². 943 88 54 63 Mikel edo Elena.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta (Nafarroa Etorb. 39-Beasain). 943-88 05 87.

Azaroak 28-29: Larnaga (Kale Nagusia, 4 - Ordizia). 943-881828.

Abenduak 5-6: Azpilikueta (Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943-880152.

ORDIZIA AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta
☎ 943 88 72 76

ARRIZAR BODEGOIA
Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara
Zaldizurreta, 7 ☎ 943 88 98 44 BEASAIN

UNIBERTSITARIOAK:

- ✓ Behar duzuen laguntza Beasainen.
- ✓ Ordutegi zabalak goizez eta arratsalde.

IKASTEK AKADEMIA
☎ 943 160 120
Joan Iturralde, 5 BEASAIN



- Esku lanak
- Ikastaroak
- Opariak
- Enkarguzko lanak

© 943 65 55 77 © 943 88 40 56
Nafarroa Etorb., 10 Andra Mari, 5
TOLOSA BEASAIN



- 'Iberikoak', gaztak, foie-ak
- Errioxako ardoak, kabak eta kontserbak



"OPARITU ZEURE BURUARI"
KALITATEA NAHI BADUZU
ZATOZ OTORDURA!

Eguberrietarako saski eta opariak


Iñauti Industrialdea, 1
T 943 88 77 55
Faxa: 943 88 34 31
OLABERRIA



Argazkiaren irudiak espazioa agurtzeko.
En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación




MultiOpticasek National Geographic
aldizkariaren urtebeteko
harpidetza oparitzen dizu.



ZERBITZU OPTIKOETAN 1a


Edonola begiratura ere, **INDO IVS** lente progresiboak erosoan dira begi nekatuentzat, izan ere, ez baitituzu betaurrekoak aldatu behar izango edozein distantziatara ikusteko. Eta orain askoz ere gehiago eskaintzen dizugu. Azaroaren 30era arte, National Geographicen eskutik paisaje eta kultura berriak aurkitzera gonbidatzen zaitu MultiOpticasek.



LORTU EZAZU MULTIOPTICAS-en «TRAVEL CLUB» PROGRAMAKO PUNTUAK.




ORDAIN EZAZU HIRU HILABETETAN ETA INOLAKO GAIKARGURIK GABE.



Ibargarai, 16
Tel. 943761575
BERGARA

J. Carlos Guerra, 1
Tel. 943792995
ARRASATE

J. M. Barandiaran Enp
Tel. 943889988
ORDIZIA



Bidebarrieta, 2
Tel. 943200522
EIBAR



Pl. de la Esmaltería, 7
Tel. 943517811
ERRETERIA

ERREZETA



Fco. Javier Villanueva
Kuko jatetxea
Ormaiztegi

ALMENDRAZKO GAILETAK

Osagaiak: 250 gr. gurin bi-
guin, 300 gr. glaze azukrea,
300 gr. arrautza, 300 gr. irin eta
250 gr. almendra gordin xerra-
tuak.

Osagaiak nahastu, oreka egi-
nez. Zilarrezko paperean oreka
bildu zilindrikoo forman, er-
tzak zapalduz. Ondoren hoz-
kailuan gorde, 12 orduz gutxie-
nez.

Labeko bandeja ondo koi-
peztatu. Erroilua ireki eta gaile-
ta forma duten zati oso finetan
ebaki. Labean sartu tenperatura
egokian, 5 minutuz, gutxi gora-
behera. Behin kolorea hartzen
dutenean, bandejatik kendu, es-
patula baten laguntzaz.

AHOLKUA



Kizkitza eta Izaskun
Barrenetxea
Itsaso edergintza

Azalak gorputzaren barre-
na eta kanpoko mundua-
ren arteko langa osatzen
du. Beraz, eginkizun ugari
eta garrantzitsu ditu bere-
kasa egin beharrekoak,
izan ere hauek bete ezean
ez bailuke irauterik izango
gorputzak.

Azala zelulaz osaturik
dago, bere berritze proze-
sua aurrera osasuntsu era-
mateko, hau da, atzenduta-
ko zelulak eliminatze eta
berriak sortzea, hainbat
sustantzi nutritibo beha-
rrezko ditu. Zelulak berrit-
zeko erabiltzen dituen
osagarriak hauek dira: oxi-
genoa, sustantzi nutritibo
batzuek eta ura.

Neguaeren hasieran go-
mendagarria da azala eta

arintzeko gai diren trata-
mentuak daude.

● Aurpegiko azala prestatzeko:

- ✕ Aurpegiko garbitasun
sakon bat egin, peeling
bat erabiliaz hildako ze-
lulak kentzeko.
- ✕ Ondoren maskarila hi-
dratatzaile eta lasaigarri
bat erabiliko dugu.
- ✕ Azkenik krema hidrata-
tzailearekin azala trata-
tu.

● Ilea eta buru azalaren prestatuntza:

Buru azal osasuntsu bat ez
baldin badugu ez dugu ile
osasuntsurik izango. Le-
hendik azalez aipatu ditu-

Aurpegi eta buru azalaren zainketa berezia

ilea zaintzea,
gaur egungo
estresak, elika-
dura txarrak,
eguzkiak sor-
tutako arazoak

gun arazoaz gain, ileak ba-
ditu beste behar tekniko
batzuek kontu handiz tra-
tatu beharrekoak, hauek
dira tinte eta permanente-
ak.

Beraz, sasoi honetan ile
eta buru azala ondo zain-
tzeko pauso hauek eman-
go ditugu:

- ✕ Gure ileari dagokion
txanpua erabili garbi-
tzeko.
- ✕ Ondoren akondizona-
dore bat erabiliko dugu
eta beharrezko bada
maskarila hidratatzaile
bat buru azalarentzat.

Bi pauso hauek eman
ondoren gure ilea eta buru
azala osasuntsuago izango
dira.

Horrela lortuko dugu
azala eta ilea urte sasoi ho-
netan hotza eta haizearen-
gandik hobeto babestea.



GENERALI
Aseguroak

INAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

OSTATUA



Juanito Rubio

Oianguren parkea
☎ 943 88 91 06
ORDIZIA

JATETXEA

BABARRUNAK ETA BASERRIKO OILASKOA

Eguneroko menua,
Enpresa menuak,
Asteburueto menu bereziak,
Ospakizunak, Banketeak,
jaunartzeak, ezkontzak...

GAZTEENTZAKO MENUAK 1.700ETIK HASITA

8, 20 edo 150 mahaikiderentzako
jantoki ezberdinak

Prycan Gabon giroko ekintza ugari

Gabonak gerturatzen ari direla eta, Prycak bi ekitaldi berezi prestatu ditu egun hauetarako.

Batetik, azaroaren 27 eta 28an, II. Artisau azoka izango da. 20 artisau bilduko dira bertan. Besteak beste, Segurako talogileak, abarkagileak, esku pilotak, eztiak, kandelak, tailatutako makilak, tapizak, txokolatea, zeramika, zumitzezko saskiak, baserriko ogia... eta abar erosteko aukera izango da. Beasaingo Musika Eskolako trikitilariek alaituko dute giroa. Ostira-lean arratsaldeko 5etatik aurrera egongo da erakusketa zabalik, eta larunbatean, egun osoan.

Bestetik, I. Olentzero lehiaketa ere antolatu du

Prycak, Segura Irratiaren laguntzaz. Goierriko ikas-tetxeen artean egingo da lehiaketa. Olentzeroa egiteko erabilitako sormena eta originaltasuna sarituko dira. Abenduaren 23an, bezeroek osatutako epaimahaiak erabakiko du Olentzero politenak zeintzuk izan diren. 3 maila eta hiru sari izango dira: 8 urte bitartekoena, garaikurra eta 50.000 pezetako saria jasoko dute; 9-13 urte bitartekoena, garaikurra eta 60.000 pezetako sariarekin; eta 13-18 artekoena, garaikurra eta 75.000 pezetako sariarekin.

Lehiaketara aurkeztutako Olentzeroak Prycan jarriko dira ikusgai, abenduaren 12tik urtarrilaren 6ra bitartean.

Zuzenketa

Lazkaoko eta Ormaiztegiko 8 eta 11 urte bitarteko haurrek ere parte hartu zuten azaroaren 21ean 'Haurren ahotsa' kanpainako hautes-

kundeean. Aurreko alean Lazkaoko eta Ormaiztegiko haurrek parte hartuko ez zutela aurreratu genizuen baina leerro hauetatik akatsa zuzendu nahi dugu.



5 goierritar Gipuzkoako selekzioan

Futboleko 17 urtez azpiko Gipuzkoako selekzioan jokatu dute 5 goierritarrek: Oier Gereñu, Segura K.E.-koak; Jon Mintegi, Idiazabal K.E.-koak, Aitor Aierbe eta Xabier Crespo Ordizia K.E.-ekoak; eta Unai Mendia, Beasain K.E.-koak. Triangularra jokatu berri dute Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako selekzioen artean. Gipuzkoarrak izan dira irabazle.

Errezil lehiaketa

Beasingo Errezil sagarren lehiaketa Gabiriako Jauregi baserriko Martina Arratibelek irabazi zuen. Postu doto-reenaren saria, berriz, Gabiriako Agerre baserriko Maria Etxezarretarentzat izan zen.

'Odolkiaren erregina' Juanita Urretabizkaia

Beasaingo Zubeldia harategiko Juanita Urretabizkaia irabazi zuen Beasingo Odolki txapelketa. 41 partehartzaile izan ziren.

Ilñaki Azurmendi

Arriaranga aizkolariak hiru-garren egin zuen Euskadiko

2. mailako aizkora txapelketan. Aurten ere ez du lortu lehenengo mailarako txartela.

Orixen bertso-paper sariketa

Rufino Iraola zaldibitarrek, Alaitz Sarasola ordiziarrek eta Aitzol Munduate ataundarrak, bakoitzak bere mailan, irabazi dute Orixen bertso-paper sariketa. Iraolaren bertso sorta, 'Euskal Herriari, lehengo egoeran' izenburukoa da; Sarasolarena, 'Euskal Herriko unibertsitatea' izenburukoa eta Munduaterena, 'Haur jaio berri baten gogoetak' izenekoak.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27




BEASAIN

IBAI-ONDO

ZURGINTZA

ALTZARIAK

P.V.C.ko LEIHOAK



Antzizar Auzoa, z/g

☎ 943 880543 BEASAIN

Autowag, s.a.



Golf berria!

☎ 943 88 82 54 / 62 / 66

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



PEUGEOT
AGENTZIA

SANTA ANA GARAJEA, S.L.

☎ 943 88 16 89 - ☎/Faxa: 943 88 08 67

Urdaneta, 74 - 76



ORDIZIA

Jose txo Atin eta Ramon Gaztelumendi: 'Goierri 2005' ideia lehiaketako irabazleak

Josetxo Atin gabiriarrak eta Ramon Gaztelumendi oreretarrak irabazi dute Goiekik antolatutako 'Goierri 2005' Ideien Lehiaketako 1.000.000 pezetako saria. Landare hondakinen berziklaiaren ustiapenerako da martxan jartzeko asmoa duten enpresa.

Gaur egun berziklaiaren gaia indar handia hartzen ari da. Orain materia organikoari buruz ere berziklaia nahiak oso indartsuak dira, European eta egiten ari dira. "Materia organikoa daukaten hondakin guztietatik, barruan badago atal bat, material begetalari dago-kiona eta zerbait egin daite-keena. Atal horri buruan bueltak eman dizkiogu, hori nola berziklatu Gipuzko-an", dio Gaztelumendik.

Landare hondakinak arazo

Orain arte Ikerlora enpresa-ekin jardineritzan egin dute lana, futbol-zelaiak, kima-ketak... Eta ikusi dute erre-pideak garbitzean sortzen diren belarrak, sastrakak, hostoak, jardineritzako hon-dakinak... gaur egun zaborte-gietan biltzen direla, "eta



Jose txo Atinekin eta Ramon Gaztelumendik, materiale begetalen berziklai enpresa martxan jartzeko asmoa dute.

arazo bat bihurtzen da du-ten bolumenagatik. Gure la-na izango litzateke horiek gestionatzea eta tratatzea", dio Atinek.

Konposta

Konposta egingo dute. "Herrietatik sortzen dena herrietara bueltatu nahi du-gu". 6 hilabeteko prozesu batean, hondakin hauekin konposta egingo dute. Ten-peratura, hezetasun eta oxi-geno neurri egokiak behar dira prozesuan. "Oso usain goxoa daukan konposta ate-rako da, lur moduko bat. Jardineritzan, kirol zelaie-tan eta baratzagintzan era-biltzeko oso egokia da. Lan-dareentzako ongarri bezala egiten du eta lurra ere abe-rastu egiten du. Lurra ha-rraogo uzten du. Lurraren

egitura hoberako aldatzen du" diote.

Lehen esperientzia


Horrelako esperientziarik ez dago Hego Euskal He-rrian. Iparraldean badago bat eta Madrilen eta Bartzel-onan ere badaude, baina, European oraindik ere berria da, 3-4 urte darazkite hone-tan. "Gu Alemanian egon gara han zer egiten duten ikusteko eta hondakin hau berziklatzea mesedegarria da". Orain arte, hondakin mota hau zabortegira era-maten zen, edo erre egiten zen. Europatik badirudi, le-ge zorrotzak etorriko direla. Alegia, horrelako produk-tuak ezingo direla zaborte-gietara bota edo erre, egu-ratsa berotu egiten baita.

II ekitaldia

II. ekitaldi honen babesle-ak: Ampo, Aristrain, Bilo-re, CAF, Construcciones Suquia, Ederfil, Eredu, Estanterias Eun, Fundicio-nos del Estanda, Guerra Hermanos, Hine, Indus-trias Landu, Imeguisa, Iri-zar, Izar, Jaso, Kendu, Or-kli, Pagosa eta Pignon.

Goierriin jartzeko asmoa daukate planta berezia. Eguraldia eta azpiegitura onak dituelako. "Enpresa koxkor bat sortuko dugu. Esperientzia pilotua da eta piskanaka-piskanaka egin beharreko lana da. Guk ba-dakigu aterako dugun kon-posta oso kalitate onekoa izango dela, baina, agian kosta egingo da hemengo merkatuan sartzea". Dato-rrren urteko maiatzerako materiala salgai jartzea es-pero dute. Momentuz, 4 la-gunekin abiatuko dira.

Sasietarekin harreman onak dauzkate, Sasietak be-larrak eta biltzeko biltegi bat egiteko asmoa ere ba-dauka. Dagoen azpiegitura aprobetxatu nahi dute bilke-tarako. "Udalei dei berezia egingo diegu, jardineri-tzarako konposta hau eros-teko. Eskertzekoa da baita ere Goiekiren lana, asko ari baizaigu laguntzen", ai-tortu du Atinek.



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak

Barandiaran
ZERAMIKAK

☎ 943 88 79 72
Senpere, 7
BEASAIN

JUAN JESUS ANDUAGA, IRIZAR KOOPERATIBAKO PRESIDENTEA:

"Bi enpresa desberdin dira duela 8 urtekoa eta orainoa"

Ormaiztegiko Irizar Kooperatiba punta-puntan dabil. Inbertsio handiak egin ditu azken aldian, fakturazioak gero eta handiagoak ditu eta lanpostu berriak ere sortu ditu. Munduan barrena, 42 herrialdetan saltzen dira Irizarrek egindako autobusak, eta 3 lantegi ere badituzte, Txinan, Marokon eta Brasilen. Juan Jesus Anduaga Irizar Kooperatibako presidentearekin izan gara.

- Inaugurazio egunean lan-gile batek zera esan zigun: nork pentsatuko zuen orain 8 urte horrela egongo gine-la! Zer aldatu da Irizarren ordutik hona?

- Ia dena aldatu da. Egia esan, bi enpresa desberdin dira orain dela 8 urtekoa eta hau. Gauza asko lortu dira, batez ere estrategia aldetik eta asmatu egin da. Oso ondo dakigu nondik gatozen eta nora goazen. Ez bakarrik hori, oso talde polita lortu dugu. Pertsona guztiak oso motibatuta eta inplikaturik daude proiektuan.

- Estrategietariko bat, zuen produktua nazioarteko merkatuetara zabaltzea izan da.

- Hartu genuen lehenengo erabaki estrategikoa horixe



izan zen: produktu on bat geneukan eta bere internazionalizazioa, produktu batekin merkatu askotara joatea. Arrakastatsua izan da eta 1992an barruko merkaturik aparte beste hiru herrialdeetan geunden bakarrik, Frantzia, Israelen eta Grezian eta momentu honetan 42 herrialdetan gaude. Eskari gehienak Ormaiztegitik bertatik bideratzen dira. Sektore guztien joeraren aurka joan gara eta garrantzitsuena agian horixe da. Sektoreko beste enpresa guztiak merkatu gutxitara joaten zirenean produktu askorekin, guk krisialdi momentu hartan, erabaki genuen beste bide batetik joatea: produktu bakar batekin merkatu askotara joatea. Asmatu egin genuen.

Erreflexio estrategiko bat egin genuen 1993-1996rako eta 1994ko irailean, 1996koa lortuta geneukan. 1996an egunean 2 autobus

egitea zen plana, eta 1994an dagoeneko 2 autobus egiten ari ginen. Hurrengo helburua zen, egunen batean, egunean 4 autobus egitea eta momentu honetan 4 eta erdi ari gara egiten eta hori ere gaintu dugu. Iaz 3 eta erdi egiten ari ginela ikusi genuen helburua lortzen ari ginela eta inbertsio handia egitea erabaki genuen eta momentu honetan planta prestatuta daukagu egunean 6 autobus egiteko.

- 42 herrialdetan saltzen dituzue autobusak eta lantokiak ere badituzue. Non?

- Autobus karrozeriak egiteko lantokiak, Ormaiztegin, Txinan, Marokon eta Brasilen ditugu.

- Aurrera begira kanpoan beste lantokiren bat zabaltzea ba al daukazue buruan?

- Harremanetan gabilta eta beste merkatu batzuk posible dira. India izan daiteke

bat. Eperik gabe hasten gara harremanetan eta ikusiko dugu Indiarekin zer ateratzen den.

- 'Irizar familia' hitza asko aipatu zen inaugurazio ekitaldian.

- Hori bizi egiten zen egun hartan. Irizarreko guztiak eta bere familiak, baita jubilatuek ere, familia bat sentitzen ginen eta guztiak ere harro egin dugunarekin eta hori nabaritu egiten zen. Eta hori halaxe da. Izan ere, momentu honetan enpresa norabide batera dago bideratuta, eta hemengo pertsona guztiok alde horretara jotzen dugu. Azken batean hori egin behar da, denok norabide berean lan egin.

- Irizarreko familia da Irizarrek duen arrakastaren arrazoi.

- Harremanak oso estuak dira, komunikazioa da nagusi. Arazoak konpontzeko beste norbaitena joan behar da eta harekin komunikatu egin behar da. Komunikazioa hain garbia eta zuzena denez, familia batean gertatzen dena gertatzen da. Ez dago bitarteko agintaririk, enkargaturik ez dago. Pertsona guztiak oso estu egon behar gara, pertsona guztiok elkarrekin eta hori komunikazio onarekin bakarrik lortzen da. Horrek beste konfidantza bat ematen du.



943 88 55 00 ORDIZIA



MUJIKA
Jatetxea

- ✓ Menuak kartan
- ✓ Ezkontza eta janaldietan berezituak

943 80 15 07 - 943 80 16 99
Liernia Auzoa MUTILOA

- Lan antolaketa berezia daukazu: ez duzue fitxatzen...

- Beste lekuetan ez dugula fitxatzen esaten dugunean, jendea harritu egiten da. Pertsonengan konfidantza edukita lortzen da. Bakoi-tzak baldin badaki ondo zer egin behar duen, kontua da, egiten uztea eta konfidantza baldin badaukazu ez dago fitxatu beharrik. Oso ondo ateratzen ari da. Pertsonak barruko hornitzaile eta bezero bat edukitzen du eta bezero horri erantzun egin behar dio. Oztopo ez baldin bada produktiorako, berak nahi duen orduan egingo du lana. Erantzunkizuna dauka eta hori bete behar du; betetzen duen bitartean, hemen ez da kontrolatzen. Inor ez zaio joaten pertsonari zer egin behar duen esatera. Norberak badaki autobusen datuen arabera bere postuan zer egin behar duen. Azken batean, norbera da nagusia, autogestionatu egiten du bere lana. Lana bezero bati zerbitzea da; ez barrukoari bakarrik, baita kanpokoari ere. Gure estrategiaren arabera, kanpoko bezeroari kalitatea, zerbitzua, kostua eta berrikuntza eskaini behar dizkio-gu.

- Lan antolaketa hau noiz jarri zenuten martxan?

- 1994ko urrian erabaki genuen lan antolaketa mota hau martxan jartzea. Batzarretan hartzen dira erabaki guztiak. Urtean 3 batzar egiten ditugu eta 1994ko udazkeneko batzarrean erabaki



Duela 9 bat urte sortu zuten Century autobusa eta arrakastatsua izan da oso. "Baita kopia-tua ere. Beste karrozeria batzuk kopia-tu egin digute. Lehenengo Mailako futbol talde garrantzitsuenek erabiltzen dute autobus hau: Erreal, Athletic, Real Madril, Atletico Madrid, Barcelona, Milan, Aston Villa, Ingalaterrako selekzioa, eta abar". Autobus honek hainbat sari jaso du.

genuen zerbait ezberdina egitea. Zerbait ezberdin hori 'reingenieritza' zen. Horren arabera guztia aldatu zen. Estruktura horizontalizatu genituen enpresa bezeroei zerbitzu hoberena emateko bideratuz; autogestio ahalmena langileari ematea eta bere garaian honen ondorioz etorri zen fitxa kentze hori; Guk ez dugu hemen, langile, eskulana, giza baliabide... bezalako hitzak erabiltzen, debekatuta daude. Hemen pertsonak pertsonak dira eta beraiek daukate autogestio-natzeko ahalmena.

- Lan filosofia hau nondik jaso duzue?

- Reingenieritzaren oinarriak EEBBetan sortu ziren eta guk oinarri horiek geure era-ra aplikatu ditugu, kopia-tzea beti txarra izaten baita. 'Reingenieritza' hitza ez da hemen asmatutakoa.

- Inbertsio handiak egin dituzue orain.

- 3.000 milioiko inbertsioa egin dugu eta Ormaiztegi-ko lantegian orain 595 pertso-nei ematen diegu lana eta beste 160 zeharkako pertso-na ditugu guretzat lanean. 1992an 225 pertsona ari gi-nen lanean. Gutxi gora-be-hera 750 familia ari dira he-mendik bizitzen. Gazte asko sartu dira Irizarren. Oso on-do prestatuak daude FP-2 egindakoak. Soldadura eta kaldereria lana asko egiten da eta Gipuzkoan momentu honetan soldatzailerik ez da-go langabezian. Goierriko Lanbide Eskolatik hain ondo prestatuta ateratzea, baita gi-za balore aldetik ere, oso ga-r-rantzitsua da.

Guretzat aktibitatea ondo egitea baino garrantzitsu-a goa da beharbada, ezaugarri batzuk edukitzea: lantaldean

lan egiteko gai izatea; iniza-tiba eduki behar du; ideiak aportatu behar ditu; eta gau-za bat nahiz eta urte askotan era batera egin eta beste era batera hobeto egin daiteke-e-la uste badu, esateko kon-promezua. Lana egiten ikasi egingo dute, baina lana egi-tearekin bakarrik ez dugu enpresa berrituko. Enpresa berritzeko gestionatu egin behar dira. Parte hartu behar dute bileretan, lantaldean, komunikatu egin behar du-te... Eta erabakiak hartzeko eta arriskatzeko gaitasuna ere eduki behar dute. Nor-malean pertsona batek zer-bait egiten badu, enpresa au-rrera joango da. Hanka sar-tuz gero, ikasi egiten da.

- Lantokiaren barruan euskararen erabilera bultzatze-ko programan sartuta zau-dete.

- Oso erantzun ona izan du. Euskarazko klaseak martxan ditugu euskaraz ez dakite-nentzat. Eta bestetik, 8 ko-munikazio zirkulu ere badi-tugu. Euskara batzordea ere martxan dago.

- Eraikuntza berrien inau-gurazio ekitaldia izugarria izan zen.

- Izugarria izan zen. Oso on-do atera zen, jendea gustora egon ginen. Irizarreko per-sona guztiak eta beren fami-liak harro sentitzen ziren eta kanpotik etorriako jendea oso gustora sentitu zen. Guztiak konturatu ziren proiektu honetan denok no-rabide berean goazela.

ANGEL IMAZ

**PINTURA
eta
PAPERGINTZA**



☎ 943 18 70 49
Ondramuño etxea

IDIAZABAL



**KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KLORETAN**

San Inazio, 5 ☎ 943 88 35 81
BEASAIN

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43

943 88 01 33

BEASAIN

ERRAMUN GAMETXOK 'NI DIOS, NI DARWIN' LIBURUA KALERATU DU:

Bizidunen sorrera ulertzeko erdiko bidea proposatzen du Gametxok

Ormaiztegin jaio zen duela 83 urte Erramun Gametxo Aldasoro. Bizitza guztia pentsatzen darama eta 21-22 urtetik hona, baita bere pentsamentuak idazten ere. 60 urteotan egindako lana bildu du 'Ni Dios, ni Darwin' liburuan. Arabera argitaletxeak kaleratu du Gametxoren azken lana.

- Liburu honekin zer esan nahi izan duzu?

- Oso liburu sakona da. 60 urtean egindako lanaren bilduma da eta oso zaila da hitz gutxitan esplikatzea. Darwinek orain dela 150 bat urte liburu famatu bat atera zuen: 'El origen de las especies'. Ordura arte mundu guztiak uste zuen Jainkoaren obra zela bizidunen egitura. Buztin piska bat hartu, forma bat eman es-



"Mundua ulertzeko bi korrante daude, kreazionismoa, fededunena, eta darwinismoa. Nik, ordea, zera diot: ez bat, eta ez bestea, beste erdibide bat dago; eta hori da nik asmatu dudana".

kuarekin eta putz egin eta gizona sortu omen zen. Darwinekin teoria hori dena hankaz gora joan zen. Darwinek zioen hori ez zela horrela gertatu, guztia eboluzioz sortu zela. Bi korrante daude, kreazionismoa, fededunena, eta darwinismoa. Nik, ordea, zera diot: ez bat, eta ez bestea, beste erdibide bat dago; eta hori da nik asmatu dudana. Orain arte hori inork ez du esan. Berrikuntza hori da.

- Erdibide hori zein da?

- Hori bai dela zaila adieraztea! Mundua, unibertsoa edo materia, berez, inork ezer egin gabe, inork sortu gabea da. Munduak ezin du kausarik eduki. Horrelaxe da eta kitto! Oso perfektua da. Oso perfektua delako gauza guztiak perfektzio alderantz doaz. Perfektiorako joera hori daukalako sortu dira bizidunak ere. Atomoak berez perfektuak dira eta perfektiorako joera daukate

nahitaez eta perfektzio horrek ekartzen du, adibidez, eguzkia eta ilargia dabilzan bezala ibiltzea.

- Zure premisa hau garrantzeko zertan oinarritu zara?

- Orain arte esan direnak bere arrazoiz esan dira. Adibidez, Jainkoa badagoela nork esan du? Sinestunak, eta arrazoi batzuk jarri ditu horretarako. Nik ikusi dut arrazoi horiek faltsuak direla. Fededunak orain arte onartu dituen arrazoi horiek ondo aztertuta faltsuak badira, nik, hipotesi bezala, kontrako jarrera hartu dut. Ea zer pasatzen den ikusi nahi dut. Orain artekoak baliok ez duenez, nik neure alternatiba eman dut. Premisa horretatik zein ondorio etor daitezkeen ikusi nahi dut, esperientzia bat egin nahi izan dut.

Liburua zabaltzen ari naiz neuk emandako arrazoiak ondo dauden ala ez jakiteko. Adibide bat: denbora espazio dela esaten

San Andres, 31

 ☎ 943 882772 (etxea)
 ☎ 943 161366 (arrandegia)
ORMAIZTEGI

MURUA TABERNAk
Jai zoriontsuak opa dizkizue!
 ☎ 943 16 30 03 **ORMAIZTEGI**

ORMAIZTEGIKO JAIK 1998

Alkatearen agurra

Gainean ditugun San Andres jai hauetan adin orotako herritar guztioi eta kanpotik etorriko zareten guztiei prestatu zaigun festa ekintzetan parte hartzeko nire gonbitea luzatzen dizuet.

Bestalde egun hauetan gure artean egoterik ezin izango dutenek izan dezate gure oroimena.

Festak ondo pasa!!!


ORMAIZTEGIKO UDALA

dut. Orain arte mundu guztiak esan izan du denbora eta espazioa bi gauza desberdin direla. Nik galdetzen dut ea zergatik diren desberdinak eta diferentzia non dagoen. 21-22 urte nituela Jaime Balmes katalanaren 'Filosofia fundamental' liburua irakurtzen ari nintzela, bien artean zer diferentzia dagoen ikusi dezagun argudio bat aurkitu nuen, baita konturatu ere argudioa faltsua zela. Hortik abiatuta atera ditut nire konklusioak. Orain arte inork ez dit esan eman ditudan arrazoiak faltsuak direnik. Inork ez dit esan oraindik, zertan huts egin dudana, eta, inork esango ez balu, gauza esanguratsua izango litzateke.

- Jendea zergatik ez da auzartzen gai hauetaz hitz egitera?

- Gauza askogatik izan daiteke: batetik, fededunek, ez dute amore eman nahi; eta filosofiatik bizi denak ezin dio bere buruari harririk bota; eta bestetik, presaka irakurtzea. Inork ezagutzen ez duen gizon baten liburua presaka irakurtzen da, irakurtzen bada.

Bizi guztiko pentsalaria

21-22 urterekin hasi zen idazten Erramun Gametxo. *"Benoa, idazten baino gehiago, pentsatzen. Ni jaio bezperan ere pentsatzen ari nintzela esaten dut. Bizitzaz dauzkadan lehenengo oroitzapenak, pentsamenduak dira. 4 bat urte nituela, Gaztelun bizi ginen orduan, nire amak leihoan jartzen zuen esne ontzira etortzen zen txoriak bi buztan zergatik zituen galdetzen nuen",* esan digu.

Ormaiztegin jaiotakoa da Erramun. Fermin Aldasoro abarkagilearen biloba da. Aita bizkaitarra zuen, itsasgizona, eta berehala joan ziren Valentziara bizitzera. Erramunek oso urte gutxi zituela hil zen aita eta berriz ere Ormaiztegiara itzuli ziren. Bizimodua atera egin behar eta Gaztelura joan ziren Erramunek 4 urte zituela, amak irakasle lana egin baitzuen. Semina-

rioko ikasketak egin zituen Erramunek.

Ofizioz, itsasuntziko irrati-telegrafista izan zen. Idazteko eta pentsatzeko denbora izango zuen ogibidea nahi zuen eta baita aurkitu ere.

'Ni Dios, ni Darwin' liburua idazten 10 urte pasatu ditut. Idazleak asko irakurri behar duela esaten bada ere, Erramunen kasua alderantzizkoa da. "Oso gutxi irakurri dut. Imotasuna eta pertseberentzia dago gakoa, ez dago beste gauzarik. Hori bai, gauzak ondo egin nahi ditut, oso perfektionista naiz".

Erramun Gametxok, bukatzeko, bere estrategiaren oinarri bat adierazi digu: *"ez dagoena ezin da frogatu, dagoena frogatu behar da. Frogatzekotan dagoena frogatu behar da. Nik ez daukat frogatu beharrik ilargian unikorniorik ez dagoela, frogatuiezaidazue zuek, badagoela".*

Erramun Gametxok, bukatzeko, bere estrategiaren oinarri bat adierazi digu: *"ez dagoena ezin da frogatu, dagoena frogatu behar da. Frogatzekotan dagoena frogatu behar da. Nik ez daukat frogatu beharrik ilargian unikorniorik ez dagoela, frogatuiezaidazue zuek, badagoela".*

- Gaztelaraz idatzi duzu liburua.

- Jende gehiagorengana iristeko idatzi dut gaztelaraz. Liburua ezagutaraztea da nire helburua eta euskararekin oso mugatua izango litzateke. Ingeleseztan edo alemanez idaztea izango litza-

teke onena baina...

- Azken lana al da hau?

- Liburu honek arrakastarik izango balu, hurrengo liburu bat ere aterako nuke, dagoeneko prestatzen hasita nago eta. Gainera, jende arruntarentzat, oraingo

baino garrantzitsuagoa izango litzateke. Oraingo liburu hau teoria mailakoa da, espekulazioa; eta hurrengo, praktika mailakoa, zoriona ekar lezakeen bide bakarra erakutsiko duelako.

EKAIZ

TABERNAk jai zoriontsuak opa dizkizue

☎ 943 88 27 71 ORMAIZTEGI

ALMOSPORT

COMPETICION

Zure kotxeko seguritatea hobetu nahi baduzu, suspensio, direkzio eta frenuetan...

Bisita gaitzazu!

Lehiaketetako esperientzia dugu alde

Zumarralde 8 ☎ 943 88 28 15 ORMAIZTEGI



ITSASO

apaindegia

San andres, 31 ☎ 943 88 06 24
ORMAIZTEGI

ILEAPAINDEGIA

- ✗ Azken teknika eta estiloak
- ✗ Tratamendu bereziak: ile erorketa, eta abar.

ESTETIKA

- ✗ Depilazioak, elektrikoa
- ✗ Gorputz eta aurpegi tratamenduak
- ✗ Masaia eta solariuma

Baita ere ilean behin sendagilea, M. Esteban (6.180): gizontasuna, barizeak, meroterapia, e. a.

Kontsulta ezazu

San Andres jaia Ormaiztegin

Azaroak 27, ostirala:

18:00etan: Musika Eskola-ko ikasleen kontzertua, Parroki aretoan.

19:30ean: 1998ko jaiei hasiera emanez, suzirien jaurtiketa.

19:30ean: Herriko txistulari eta trikitilarien kalejira.

23:00etan: Rock taldeen kontzertua Zubipe kiroldegian, Udalak antolatuta Gazte Asanbladaren laguntzaz.

Azaroak 28, larunbata: ume eta koadrilen eguna:

12:00etan: Umeen danborrada, Tximelak txarangak alaiturik.

17:00etan: Gorriti eta bere animalien ikuskizuna herriko enparantzan.

19:00etan: Helduen moztroen desfilea, dantza eta saribanaketa, Zubipe kiroldegian.

22:00etan: Estanga trikitilariekin kalejira.

22:00etan: Bertso jaialdia Zubipe kiroldegian: A.M. Peñagarikano, X. Euzkitze, S. Lizaso, I. Murua, J.R.



Elorza, M. Lujanbio eta A. Egaña. Gai-jartzailea: Joxerra Garzia.

24:30ean: Estanga taldeen kontzertua Zubipe kiroldegian.

Azaroak 29, igandea:

Umeentzako parkea izango da egun guztian zehar, Zumalakarregi enparantzan.

10:00etatik 14:30era: V. Artisau erakusketa herriko enparantzan.

11:00etan: Meza Nagusia.

Jarraian: Tolosako Udal Txistulari bandaren kontzertua, Ander Deunaren elizan.

11:00etan: Kadete mailako XXXIV. San Andres ziklo-kros saria.

11:00etan: Koldo Triki-Tixa eskolako ikasleen kalejira.

12:00etan: Sub-23 eta juvenilen mailako XXXIV. San Andres ziklo-kros saria.

13:00etan: Udalak Baso-Txulo eta Barduliarrak elkarteen laguntzaz eskainiriko hamaiketakoa, herriko enparantzan.

18:30ean: Herri-kirol jaialdia, Zubipe kiroldegian. Aizkolariak: Senosiain-Peñagarikano eta Elorriaga-

Mugerza. Harrijasotzaileak: Mieltxo Saralegi. 6 metro-tako altuerako enborrean Mugerza arituko da. 11 urteko Ugaitz Mugerza aizkolariaren saioa ere izango da.

Azaroak 30, astelehena: San Andres eguna:

Umeentzako parkea izango da egun guztian, Zumalakarregi enparantzan.

11:00etan: Meza Nagusia, Ander Deunari eskainia.

11:00etatik 13:30era: Odolki osagaien azoka herriko enparantzan.

13:30ean: XII. Odolki lehiaketa, Basu-Txulo eta Barduliarrak elkarteen laguntzaz.

18:30ean: VI. San Andres Pala txapelketaren finala.

Oharra: Festa egunetan Heliodoro Etxeberriaren boligrafo eta egutegien erakusketa eta eskulan ikastaroko ikasleek egini-ko lanen erakusketa ikusgai izango dira Kultur etxe-ko aretoan.

Z·M

Gipuzkoako Foru Aldundia
ZUMALAKARREGI • MUSEOA

Iriarte-Erdikoa Baserria
Tel. 943 88 99 00
Faxa 943 88 01 38
ORMAIZTEGI

GURRUTXAGA AUTOBUSAK

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Zumalakarregi, 9 ☎ 943 882834
ORMAIZTEGI

ARANTXA taberna

Pintxo eta ogitartekoak

San Andres, 13

☎ 943 88 28 22 ORMAIZTEGI



ETXE-AZPI

LANCIA ZERBITZU OFIZIALA

San Andres jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

☎ 943 88 10 61

ORMAIZTEGI

Heliodoro Etxeberria, boligrafo eta egutegi txikien bildumazalea

Ormaiztegiko Heliodoro Etxeberriak boligrafoen eta egutegi txikien bilduma egiten du. San Andres jai hauetan, Kultur etxean, ikusgai izango dira, herriko emakume talde batek egindako eskulanekin batera.

Heliodoro Etxeberria, duela hiru arte hasi zen boligrafo bilduma egiten. Batez ere, errotuluak dituen boligrafoak biltzen ditu. 300dik gora ditu. Egutegi txikien bilduma, berriz, aspaldi hasi zen egiten: 1951n. 2.600 egutegitik gora dauzka.

Lagunek, ezagunek... ematen dizkiote, jakin bai

baidakite Heliodorok bilduma egiten duela. Boligrafoak lortzea zailagoa dela aitortu digu. Hala ere, baditu laguntzaile finak: "lagunen batek bi boligrafo bota dizkit balkoira", esan digu. Herriko jaietan erakusketa jartzea, batetik, jendeari egiten duen lana ezagutzera ematea, eta bestetik, pieza gehiago lortzea da.

Karpetetan sailkatzen ditu bai boligrafoak, bai egutegiak. Egutegien kasuan, 1951tik 1979ra bitartekoak karpeta bakarrean ditu; handik aurrerakoak, urtean urtekoak. "Urte haietan oso gutxi izaten ziren eta karpe-



urtetik gorako mutilek neskenei begiratzeko diete". Mutilenak ere ba omen ditu.

Inguruan ez dago horrelako bildumazalerik. Nafarroako Cortes herrian bada emakume bat ordea, eta harekin trukatu egiten ditu errepikatuta dauzkanak

ta batean ditut bilduta, 1979ra arte. Handik aurrera, urteko karpeta bat daukat". Santuen egutegiak ditu gustokoenak. Arantzazura joaten da ia igandero eta handik ere egutegi asko ekartzen ditu. "Jendeari normalean kirolenak gus-tatzen zaizkie baina 14-15

Betiko bildumazalea

Betidanik gustatu izan zaio Heliodorori gauzak biltzea. Jakitera eman digunez, beste hiru bilduma garrantzitsu ere baditu: Diario Vasco eta Diario de Navarra egunkariak argitaratzen dituzten liburu bildumak eta herramientena.

Comercial MARKEL

Zumarralde, 2
Tfnua - faxa:
943 16 15 56
ORMAIZTEGI

- ✗ Iturgintza eta elektrizitatea
- ✗ Berogailuak
- ✗ Burdindegia

ELEKTRAGAILU DENDA

MURUA harategia

- Bertako haragia
- Odolki eta txorizoak

Maiores plaza
ORMAIZTEGI ☎ 943 88 27 64

SAGARNA

ARRANDEGIA

☎ 943 88 68 73 (denda) ☎ 943 16 02 01 (etxea)

Zumalakarregi, 4 **ORMAIZTEGI**

KEMEN

KIROLAK

Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI

ESTANKO
janaridenda

- ✗ Egunkari eta aldizkariak
- ✗ Opariak
- ✗ Eskolako gaiak
- ✗ Mertzeria

Festa onak pasa!

☎ 943 88 77 24
Serapio Mujika Plaza, 3
ORMAIZTEGI

KUKO
Jatetxea

Kuko, gure txef-ak zure sabelak eskertuko duen menua eskeintzen dizu:
Astelehenetik ostiralera menu bereziak.

Toki mugatua dagoenez eskaerak aurrez egitea komeni da.

On egin diezazula!

Berjadegi plaza z/g
☎ 943 88 28 93 **ORMAIZTEGI**

ATAUN

D. Juan Lekuona omendua



Hainbeste urtetan, Aiako apaiza izan den D. Juan Lekuonak, gaur erretiratua, San Martin egunean ospatutako herriko jubilatuen bazkarian, ondo merezitako omenaldia jaso zuen. Alkatetik, Ataungo Oroigarria eman zion herriaren izenean esker ona adieraziz eta herrian eta batez ere Aiako auzoan egin duen lanarengatik.

Argazki Lehiaketa 98

Ataungo Udalak antolatzen duen Argazki Lehiaketa 98ra argazkiak aurkezteko epea abenduaren lehen bu-

katzen da. Lehen hirurak sarituak izango dira eta bestalde, bertan aurkeztzen diren egokienekin herriko postalak egingo dira.

Goierriko argazki zaletu guztiei, bertan parte hartzeko gonbidapena luzatu nahi zaie eta horrela nahi izanez gero 'Ataun' gaitzat duen 3tik 9ra bitarteko argazki kopurua onartzen dira partaideko eta 18x24ko neurrikoak izatea dira baldintza garrantzitsuenak.

Akabo San Martinak

Korrikaldiarekin amaitzen ziren aurtengo San Martin

Ataungo Hiru Auzoetako XIX. Korrikaldia

Lehenengo igandean korritu zen aurtengo Ataungo Hiru Auzoetako Korrikaldia. Izotzarekin oraindik inguruak erabat bere zurtasuna galdu gabe zuela eman zitzaion hasiera goizko 11etan. 100 korrikalari inguru elkartu ziren irteeran eta herriko hiru auzoak zeharkatzen dituen proba honetako emaitza besteak beste, ondorengo hau izan zen:

1.- Manu Hurtado Caballero	Beasain	57'07"
2.- Jon Salvador Villa	Bilbo	57'13"
3.- Gaizka Larramendi	Donostia	57'59"
1. neska.- Mari Carmen Garcia	Arrasate	1h19'35"
1. beteranoa.- J. Antonio Otxoa	Eibar	1h02'29"

Ataundarrak:

1.- J.Ramon Agirre	Ataun	1h07'08"
1. neska.- Pili Albisu Imaz	Ataun	1h20'24"
1. beteranoa.- Juan Arrondo	Ataun	1h14'54"

jaiak. Eguraldia izan ez bada ere oso lagun, giro ederrean pasatu direla behintzat esan behar. Aipatu gabe ezin utzi azaroaren 15ean Jentilen Etorrera etorri zen jendetza eta eskaini ziguten ikuskizuna. Mondeju beltzak ere txistu bizian desagertu omen ziren. Bertsolariak, berbenak, umeen eguna, jokuak eta bestelako ekintza desberdinak oso ondo joan zirenez, ezin ahaztu

zoriontzea eta eskertzea antolatzaile guztiei. Datorren urtean gehio eta hobeto!

Errifa saritua

779 zenbakiarentzat izan zen 'Ataunen ere egingo dugu' zozketako saria. Barriola famaliari tokatu zaio saria; Ataungo produktuen sorta. Errifa guztiak saldu dira eta antolatzaileek eskerak eman nahi dizkiote herriarrei.

OLABERRIA

Gabonak gerturatzen ari direla eta, Prycak bi ekitaldi berezi prestatu ditu egun hauetarako.

Batetik, azaroaren 27 eta 28an, II. Artisau azoka izango da. Beasaingo Musi-

ka Eskolako trikitilariak alaituko dute giroa.

Bestetik, I. Olentzero lehiaketa ere antolatu du Prycak, Segura Irratiaren laguntzaz. Informazio gehiago 10. orrian duzue.

Prycan Gabon giroko ekintza ugari

'Egingo dugu'

Egin egunkariaren orde zaleratuko den egunkari berria diruz laguntzeko kanpaina ari da burutzen herrian. Kontu korrante bat zabaldu dute dirua jasotzeko: Kutxako 2101 0030 96 00.1078396.7.

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

Osasun eta edergintzarako onena

Masaia on bat osagarri!

Oraindik ez al duzu probatu?

2.000 pezetan ahal duzu

ANUSKA GARMENDIA ZUBELDIA

Laskurain, 16
943 65 54 61
TOLOSA

Andramari, 1
943 88 99 77
BEASAIN



BEASAIN

Ikastetxera nola behar den ikasiz



Nondik zeharkatu behar da kale bat? Zein da errepide eta galtzaden arteko ezberdintasuna? Zer esan nahi dute kaleetan dauden seinale ezberdinek? Nortzuk dira eta zertarako daude udaltzainak? Beasaingo haurrei galdera horien erantzuna emateko Udalak herriko lau ikastetxeetan Bide Heziketari buruzko ikastaroak eman berri ditu. D.L.H.ko haurrak izan dira ikastaroa jaso dutenak. Guztira 400 bat haur izan dira, 3., 4. eta 5. mailakoak.

Angel Sanz, hezkuntza zientzietan lizentziatua eta udaltzaina, izan da ikastaroen arduraduna. Horretarako, hasi aurretik, prestakuntza epe bat izan zuen Donostiako Udaltzaingoaren Prestaketa Arloan. Angel Sanz udaltzainak adierazi zenez, ikastaroak lau ziklo ditu: aurten eman dena lehenengoa izan da, 'Herria'. Datorren urtekoa 'Errepideak' izango da, eta hirugarren eta laugarren zikloak errepasokoak izango dira, batez ere sorospenari dago-kiona sakonduz. Hala ere, gurasoen jokaerek haurren bide heziketan duten garrantzia azpimarratu zuen,

umeez eredutzat hartzen baitituzte.

Ikastaroak urrian hasi ziren eta bost egun iraun dute ikastetxe bakoitzean, egunero ordu bete ematen zelarrik. Lehen ikastorduan trafikokoaren definizioa eta kalearen osagaiak zeintzuk diren azaldu ziren. Bigarren bidegurutzeak eta kalea zeharkatzeko laguntzaileen azalpena eman zitzaion haurrei: hala nola, semaforoak, pasabideak eta udaltzainak. Hirugarren eguna trafiko seinaleen sailkapena eta esanahia azaltzeko izan zen, seinale bertikalen forma eta koloreak azpimarratuz. Laugarrena, ikastetxeko autobusean nola joan behar den irakatsi zitzaion batez ere, eta baita autoan doazela zer ez den egin behar. Bosgarren mailan daudenei, txirrinduan nola ibili behar den ere azaldu zitzaion. Azken eguna praktika eguna izan zen. Ikastetxe ondoko kalera atera eta bertan ikasitako kontzeptu eta jokabideak errepasatu zituzten, seinaleak eta sortu daitezkeen arazoak. Bukatzeko, haurrek test idatzi bati erantzun beharra izan zuten.

Nikaraguara dirulaguntza

Udaleko Ongizate sailaren ekimenarekin, 24 milioi pasatxo bidali nahi dira Mitch hurakanak kaltetu dituen Nikaraguako Estelí eta Somoto herrietara. Batetik, herritar bakoitzeko 1.000 pezeta bildu nahi da eta bestetik, Udalak beste 12 milioi jarriko ditu. Horretarako, herriko hainbat entitatetan 1.000 pezetako bonoak daude salgai. Kanpainan parte hartzen ari direla adierazteko kartel adierazgarriak dituzte entitate hauek, bonoak non erosi jakiteko. Foileto bat banatzen ari dira aste honetan bertan, kanpainaren berri emateko.

Udaltzainen irudia aldatu

Hilario Urretabizkaia udaltzainburuaren esanetan, ikasgai horren helburua trafikokoak sortarazten dituen arazo eta arriskuek izan ditzaketen ondorioak ezagutaraztea da; batez ere, umeez etxetik ikastetxerako ibilbidea segurtasun osoz egin ahal izan dezaten. Baina beste helburu bat ere bada: udaltzainen irudia aldatzea haurrek ez ditzaten etsai bezala ikusi, laguntzaile bezala baizik. Horretarako egiten dituzten keinuen esanahia azaldu zaie. Gainera gaur egungo umeak etorkizuneko helduak izango direnez, gai horretan hobeto heziak izan daitezkeen nahi dute. Ohiko klaseetan ematen ez den gai bat izan arren, Logse izeneko legeak Bide Heziketa eman beharreko ikasgaitzat jo du.

Bide Heziketari buruzko interesa 1992. urtean piztu zen Udaletxean. Urte haietan Eusko Jaurlaritza izaten zen Ertzaintzaren bidez ikastetxeetan Bide Heziketari buruzko zenbait ikastaro ematen zituena. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeak ugariak direnez, 3 edo 4 urteetan behin egiten zen bakarrik.

Beasaingo Udalak 1997. urtean proiektua martzan jartzea erabaki zuen. Ikastetxeetako zuzendariei proposamena egin zitzaion, eta guztiei ideia oso ona iruditu zitzaion.

Aldaketak Foru eta Errekarte kaleetan

Egun batzuetik hona Errekarte kaleetik pasa denak autoen aparkalekuak lekuz aldatu direla ohartuko zen. Hain zuzen, Bederatzirena etxetik Loinazko San Martingo baselizara doan bidera arte ezkerretara aparkatu beharrean, orain eskubitara egin behar da. Hilario Urretabizkaia udaltzainburuak azaldu duenez beharrezkoa zen San Martinera joateko dagoen bidegurutzean Foru kaleetik zetozen autoak ikusten ez zirelako, horrek dakarren arriskuarekin. Baina aldaketak ez dira horretan geratuko. Udaltzainburuak kale horrek norabide bakarra eskatzen duela esan zuen: Alkartasuna Lizeotik Igartzara doana. Hala ere momentuz, Beasain lanetan murgildua dagoenez, Nafarroa Etorbideko aldaketak bukatu artean itxarongo da Foru kalekoak hasteko.

Jon Ordoñez

LAZKAO

Ezetz aspertu!



Literatur astea, liburu azoka, txorizugarri lehiaketa, mus txapelketa, ikusentzunezkoak eta abarrek osatzen dute datozen egunetako eskaintza zabal eta anitza. Aspertzeko aukera gutxi dugu, beraz, urte amaiera honetan.

Txorizugarrien lehiaketa

Aurtengoa, III. Txorizugarri lehiaketa izango da, hain zuzen, eta azkeneko bi urtetako arrakasta ikusirik aurtengoak ere arrakasta bera edo haundiagoa izango du. Edonork har dezake parte lehiaketa honetan, ez dago beraz, adin mugarik. Kusoak edozein materialez egin daitezke baina denek eraman beharko dute ardatz bat lurrean tente mantentzearen eta baita esaldi bat ere gai honi buruz: 'XXI. Mendeko akordioa: Bai Euskarari!'

Parte hartzeko, Gerriko liburutegian eman behar da izena abenduaren 2a bai-

no lehenago. Izena ematera koan, egilearen izenaz gain txorimalo bakoitzak eramango duen esaldiaren berri ere eman beharko da.

Sari ugari izango dira irabazleentzat eta kuso guztiekin erakusketa bat ere egingo da abenduaren 16tik 20ra. Sari hauen zenbatekoa eta erakusketaren berri gehiago hurrengo alean eskainiko dizuegu.

Literatur astea eta liburu azoka

Durangoko liburu azokak duen indarra aprobetxatuz eta bertan aurkeztu diren berrikuntzak asko izanik, aspaldiko urtetako ohiturari jarraitzeko asmoz, aurtengoa ere Euskal Liburu eta Disken Azoka egingo da Lazkaon abenduaren 16tik 20ra. Hurrengo alean informazio gehiago izango baduzue ere, aurretik jakinaren gainean jarri nahi genizuen, izan ere azokarekin batera baina astebete lehenago Literatur astea izango baita Lazkaoko gategarrentzat.

Literatur aste honetan parte hartuko duten idazleak, Juan Luis Zabala, Patxi Zubizarreta eta Itziar Zubizarreta izango dira. Idazle hauek, beraiek idatzitako nobela bat aurkeztuko diete Lazkaoko gazteei, hauek aurretik liburu hori irakurritako izango dutenez, egileari berari galderak egiteko aukera izango dutelarik.

'Moskorrak' mus txapelketa

XVII. 'Moskorrak' mus txapelketa datorren abenduaren 12an jokatu da arratsaldeko 4,30etatik aurrera. Sona haundia duen txapelketa honek, inguruko herrietako muslarrien arreta jasotzen du urtero. Lazkaotarren eta kanpokoen batura eginez gero ehundik gora bikote biltzen dira urtero txapelketa honetan parte hartzeko. Aurtengoa ere, aukera bikaina dago sari ederrak irabazteko, horretarako, abenduaren 12an arratsaldeko 3,30etan izena eman beharko da Gerriko Tabernan.

Txapelketa 8 erregetara jokatu da, 8 hamarrekotako 3 jokutara, eta bikote bakoitzak 3.000 pezeta jarri beharko ditu parte hartzeko. Sariak ere ez dira nolana hikoak, lehengo bikoteak, 120.000 pezeta jasoko ditu esaterako. Lehenengo kanporaketaren ostean, ohi bezala, txerri baten zozketa egingo da partehartzaileen artean.

Kultur eskaintza

Azaroaren 30etik abenduaren 6ra, Lasarteko zirkuetoari buruzko argazki erakusketa. Arratsaldeko 6etatik 8etara Udaletxeko Areto Nagusian.

Abenduaren 1ean, bertso afaria izango da Maizpideko jangelan. Parte hartuko duten bertsolariak Ekaitz Goikoetxea eta Ibon Karre-ra izango dira.

Abenduaren 2an, 'Nami-bia, Hegoafrika, Zinbawe eta Botswana' diaporama eskainiko du Josu Izagirrek gaueko 9etatik aurrera Maizpiden.

Abenduaren 10ean, azkenik, Josu Izagirrek 'Iparralde: Xiberutik itsasora' diaporama eskainiko du, arratsaldeko 3,30etan Maizpiden.

Udaltzain postua

Udaltzain berria izateko aurkeztu eta onartu direnen zerrenda publikoa da jada. Dozena batetik gora izan dira aurkeztuak, eta hauen arteko aukeraketa martxan dago dagoeneko. Abenduaren 15ean, izango dute lehengo azterketa.

Bai Euskarari

Bai Euskarari kanpaina martxan jarri du Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak. Euskararen etorkizuna bermatzeko eta bere erabilera bultzatzearren martxan jarritako kanpainak, Lazkaon ere izango du bere oihartzuna. Horretarako, euskararen inguruan arduratu duten erakunde eta taldeak biltzen hasiak dira eta bileren emaitzak aurrerantzean ikusiko ditugu.

Urko Irastorza

RENAULT
AGENTZIA

LAZKAO GARAJEA

Senpere Industrialdea
943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO

AMEB

Sagardotegia

Errege bezala egunero irekita eguerdi eta gauean, astelehen gauean ezik.

- ✗ Eguneroko menua
- ✗ Karta zerbitzua
- ✗ Plater konbinatuak
- ✗ Asteburuetan menu bereziak

Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO

GABIRIA

Miren Agirrezabal irabazle



Joan zen igandean ospatu zen Erbie Elkarteak eta Udalak antolatuta Gabiria-ko III. Errezik Sagar lehiaketa eta bertan, 16 herritarrek hartu zuten parte. Lehiaketaz gain, bertako produktuen azoka ere izan genuen. Eguraldia izan zen protagonista; izan ere, aspaldiko egunik hotzena izan baikenuen.

Lehiaketako epaimahian aldaketa bat izan zen; izan ere, Zeraingo Joxe Antonio Iparragirrek ez zuen etortzerik izan gaixotu egin zelako eta bere ordeztu Diputazioa Nekazaritza Saileko arduradun den Salvador Gorostola aritu zen. Lehenengo saria Oñatibi-Txiki baserriko Miren Agirrezabalentzat izan zen eta berak

jaso zituen Erbe Elkarteak eskainitako garaikurra eta Udalararen 10.000 pezetak; bigarren saria Korta jatetxearen garaikurra eta 8.000 pezeta, Alkaingo Xantirentzat eta azkenik Legazpiko Zabaleta erlojutegiaren garaikurra eta 6.000 Urkiola baserriko Xabier Arratibentzat. Honetaz gain, ondo merezitako omenaldia egin zitzaion Miren Agirrezabali. Oparien artean Arrondo zerrategiak eskainitako zilarrerzko bandejatxoa eta Unanue gozotegiaren lore-sorta eman zitzaizkion.

Mari Loli, Makilari lehiaketako irabazle

Makilari aldizkariko lehiaketa Aranburuko Mari Loli irabazi du. Asmatu be-

harreko bi baserrien izenak Aitagaiti eta Aranburu-Azpi ziren.

Haurren hauteskundeak

Unicef erakundeak EAEn antolatutako 'Haurren Aho-tsa' kanpainaren barruan eta 'Gure eskubideak ezagutzeak eta besteenak errespetatzek hobeto hazten gaitu' lelopean Balantzategi herri-eskolako 8 eta 11 urte arteko haurrek bozkatzeko aukera izan zuten azaroaren 20an. Botoa eman aurretik eskolan 12 eskubide landu eta aztertu zituzten eta ondoren eurentzat garrantzikoena zein zen aukera zuten.

Gabino Mrua

LEGORRETA

Pulit-Zer? argazki lehiaketa

Pulit-Zer? argazkizale elkarteak 2. argazki lehiaketa antolatu du Udala eta Jota Kea elkartearen laguntzarekin.

Edonork har dezake parte lehiaketan. 1998ko abenduaren 11 baino lehen izan behar dira elkartearen esku. Argazkiak Kultur Etxean jasoko dira, astelehene-tik ostiralera arratsaldeko 5etatik 8etara. Bi gai izango dira: gai librea eta 'Legorreta', zuribeltzean nahiz koloretan. Lehiakide bakoitzak nahi adina argazki aurkeztu

ahal izango ditu.

Argazkiak paperean aurkeztuko dira, gutxiengo neurria 13x18cm, eta gehienez 50x70 cm. takoa izango da. Argazkien atzekaldean ezizen bat eta izenburua jarriko dira. Argazki(ar)ekin batera gutun itxi bat utziko da ezizen berdinarekin, eta bertan honako datu hauek azalduko dira: egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa.

Sari-banaketa ekitaldia abenduaren 31n, aurrez ira-

garriko den orduan izango da, Kultur Etxean. Epaimahia, gai libreari dagokionez, argazkilari profesional ezagunek eta elkarteak kide batek osatuko dute. 'Legorreta' gaian berriz, erakusketara azaltzen direnak erabakiko dute, horretarako jarriko den kutxan bere aukeraketa sartuaz. Gai librean 50.000 pta eta 20.000 ptatako bi sari egongo dira, eta 40.000 ptako diru sari bakar bat izango da 'Legorreta' gaian.

Koadrilen arteko futbola

Eman zaio hasera koadrilen arteko futbol txapelketari. Partiduak larunbat arratsaldetan eta igande goizetan jokatu dituzte Ugao Herri Eskolako kirol gunean.

Lehiaketara aurkeztutako argazkien artean egindako aukeraketa batekin, erakusketara antolatuko da Kultur Etxean, abenduaren 24, 25 eta 31n.

Josune Amondarain

GOIERRITARRA



943 88 96 12

EROSKI KAFETEGIA

gosari - merienda eguneroko menua

943 88 27 93

ORDIZIA

LEIAR

KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea 943 88 60 70

BEASAIN

SEGURA

Futbola

Asteburuko emaitzak: Errejonak: Segura 3-1 Aurrera. **Jubenilak:** Hondarribia 1-2 Segura. **Kadeteak:** Urnieta 0-7 Aizkorri. **Infantilak:** Aizkorri 1-1 Tolosa.

Asteburuan etxean: Kadeteak: Aizkorri-Tolosa, zapatuan, 11:30ean. **Jubenilak:** Segura-Beasain, zapatuan, 16:00etan.

Pelota

Gipuzkoako klubetako arteko txapelketako ligaskan, jubenilek Eibarkoen kontra jokatuko dute asteburu honetan. Afizionatuak asteartean ziren Zumarragaren aurka jokatzeak. Datorren asteburuan, abenduaren 4an, gaueko 10etan, jubenilek oñatiarrekin eta afizionatuek Lazkaoarrekin jokatuko dute Baratze pelotalekuan.

Labur-labur

● **Autobusa Donapaleura.** Asteburu honetan Donapaleun izango den IV. Iparra-Hegoarako autobusa, azaroaren 28an goizeko 9etan aterako da Segurako plazatik.

● **Turismo bulegoa.** Abenduaren 6an, dira turismo bulegoa irekitzekoak kultur etxeko jolas gela izan den lokalean. (Bidetxur, 98ko azaroa). Hau, herriko egun

Kantu-eskean San Nikolas egunez



Balkoi eta leihoetatik botatako fruituz, goxokiz eta diruz poltsak betetzeko aukera izango dute aurtengoa ere haurrek. Eskubian, 1965 urteko San Nikolas, Antton Telleria.

Urteroko ohiturari jarraituz, abenduaren 6an, neska-mutikoen urtean zehar duten egunik berezietakoa, herriko kale eta auzoak euren ganatuko dituzte. Haurrak, bakoitzak bere poltsatxo eskuetan duela, goizeko 10,30etan elkartuko dira elizan. San Nikolasen aldarean eskainiko zaien mezaren ondoren, obixpoz jantziko den umeari jarraituz kantu-eskera aterako dira. Ibilbidea urterokoa izango da. Jermanenen hasita Kale Nagusia igo, plaza gurutzatu, erdiko kalea jaitsi eta baztarkaletik igota, Akelarre, Itturiberrialdea, Beheko-Soraa, Andraitx eta Gain-Argi auzoak pasata, bikarioaren etxe aurrean amaituko

dute ibilaldi luzea. San Nikolas eta bere laguntzaileari, ordea, komentuko mojekin kunplitzea geratuko zaie. Poni eta guzti lokutoriora sartuz, azken aldiz ekin beharko dio obixpotxoak San Nikolas txikiaren kantuari.

Aurtengoa Eñaut Arretxe

Aspalditxoan, Laiotz Herri Eskolako LHko Igo mailako mutikoen artean zozketa egin izan da San Nikolas eguna baino astebete-hamar egun lehenago. Aurtengoa, zozketan parte hartzeko aukera zutenak (aurten 6 urte dituztenak) 3 bakarrik ziren. Zozketaren eguna urduritasunez betetakoa izan ohi da

berezietan irekiko da eta Josune Arrondo izango da bertan arituko dena. Egokitu berria den aretoa, urtean zeharreko egunetan, bilera,

hitzaldi, eta abarretarako erabili ahal izango da.

● **Liburutegia kultur etxean.** Gaur egun udaletxe az-

mutikoentzat nahiz euren familikoentzat, ez baita San Nikolas jantzeko aukera gehiagorik izango. Aukeraketaren eguna azaroaren 20a izan zen eta bertan, Eñaut Arretxe Agirreri tokatu zitzaion aurtengo obixpo txiki izateko ohorea. Honen, poni gainean egin beharko duen kantu-eskerako bere ondoan ibiliko den laguntzailea aukeratua du. Hau, bera baino zahartxeagoa, familiakoa, laguna edo etxekonekoa izan ohi da. Bere egitekoa, San Nikolasen konfidantzazko pertsona izatea eta herriko zenbait etxetan obixpotxoari ematen dizkioten opariz betetako kukurutxoak bandejan hartu eta gordetzen joatea da. Aurtengoa, Egoitz Juantorena Lardizabal, 8 urtekoa.

Arratsalde ere festa

Azken 2 urteetan festari jarraipena eman nahi izan zaio arratsalde ere. Aste honetan zen erabakitzeak kultura batzordean neska-mutikoentzako festa egitaraua.

pian dagoen liburutegia kultur etxera pasatzeko erabakia hartua dago. Lekua egokitu bezain laster egingo litzateke aldaketa. (Bidetxur, 98ko azaroa).

● **Markesaneke señoitei omenaldia.** Udalak Alustiza ahizpei omenaldia egiteko asmoa die. Udalak, herriko alaba kuttun izendatu eta plaka bat emango lieke. (Bidetxur, 98ko azaroa).

● **Iñaxio Imaz** erremonteko txapelketa nagusiko finalaurrekoetan sarturik da Koteto Ezkurrearekin batera.

Joseba Telleria

San Andres azaroaren 29an

San Andres eguneko hurrengo jaie San Nikolas tokatzen zela eta, egun bat atzeratuz, bezperan ospatuko da aurtengoa. San Andres ermittan 12:30ean izango da auzoan hildakoen aldeko meza. Bertan, base-rrietan jaso berriak diren indibabak, artoak, sagarrak... bedeinkatuko dira. Ondo-



ren, udalaren laguntzaz eskainitako hamaiketako eta herriko txistularien saioa elizatarian.

IDIAZABAL

4 milioi Nikaraguara bidaltzeko

Mitch-ek eragindako kalteei aurre egiteko 4 milioi pezeta bildu dira herrian. Udalak herriko aurrezki kutxetan kontu korronte bana zabaldu zuen eta horietan herritarrek egindako diru sarreraren bidez eta udalak emandako 750.000 pezetako laguntzaren bidez lortu da diru kopuru hori biltzea.

Gizarte Ongizate Batzordeak astelehenean egindako bileran nola eta noiz zehaztu ez bazen ere, bildutako dirua Nikaraguan bizi den Eurne Aranburu herritarri helaraziko zaio. Eurnek dirua Gurutze Gorriaren bidez edo Nikaraguako Hezkuntza Ministerioaren laguntzaz banatu daitekeela jakinarazi du.

Sanblasak

Datorren urteko Sanblasak urtarrilaren 31an hasi eta otsailaren 7an bukatuko dira. Kultura Batzordea aste-bete horretarako egitaraua antolatzen ari da. Oraindik programa behin behinekoa da, hala ere hainbat berrikuntza izango da. Lehen gazte eta helduentzat egingo den Sumo lehiaketa, bestea, Euskal Herriko sokatira txapelketa.

Egitaraua osatzeko eta jendearen proposamenak jasotzeko, ostiralero biltzen da Kultura Batzordea 19:30ean Kultur Etxean.

Dantza taldea

Okerrik ez bada Sanblasetan

eskainiko du lehenengo saioa Axari dantza talde eraberrituak. Udalak irakasleak eskatuz egin zuen deialdiak erantzun ona izan du. Irakasle taldea osatuta, orain dantzarietara egin zaie deia. 5 urtetik gorako haurrek eman dezakete izena dantza taldean, horretarako Kultur Etxera jo behar dute gaur, azaroak 27, 17:30etik 19:30era.

Euskararen Kontseilua

Euskararen normalkuntza bultzatzen ari den Euskararen Kontseilua taldeak 'XXI. mendeko akordioa: bai euskarari' kanpaina aurkeztu zuen herrian azaroaren 19an.

Talde hau euskalgintzako indarrak bildu eta euskararen normalkuntza gizarte eremu guztietara zabaltzeko lanean ari da. Herriko elkarre, ikastetxe eta erakundeei proiektu horretan parte hartzeko gonbitea egin zitzaizen ekimenaren aurkezpenean. Lehenengo bilera horren il-dotik herrian proiektua bultzatuko duen taldea sortu da. Herriko erakunde eta talde politikoetako ordezkariak eta herriko beste hainbat lagunek osatuko dute taldea. Beraien helburua herriko eragilea sozialen bidez kanpainaren berri eman eta atxekimenduak lortzea da.

Xabier Urteaga

ZALDIBIA

Gabonetako entseiuak

Amnistiaren Aldeko Batzordeak abenduaren 24an etxeko kantari ibiltzeko asmoa du, eta abestiak ikasteko, Kultur etxean bilduko dira abenduaren 3tik aurrera (10, 15, 17, 22 eta 23an) gaueko 9etan.

Larunbaterako autobusa

'Gabonetarako Euskal Presoak Euskal Herrira' lemapean Senideak-ek deitu duen manifestaziorako gonbitea luzatu du Zaldibiako Herri

Ekimenak. Bilbora joateko autobusa antolatu da eta Illatin edo Joxepanen eman daiteke izena. Autobusa 15:00etan aterako da plazatik. Egun horretan 'Euskal Presoak Euskal Herrira' oihala balkoietan zintzilikatzeko eskatu nahi diete herritarrei.

Hitzaldiak

Santa Fe parroki elkarteak hitzaldi bat antolatu du talde eratuen inguruan (mendi taldeak, politika, futbola eta kristau elkarteak). Pako Etxebeste soziologoa gonbidatu dute gaur, hilak 27, iluntzeko 8etan Kultur etxe-

an izango den hitzaldia emateko.

Zaharren Egoitzan ere badute hitzaldirik. Asteazkenean, Amagoia Murua-mendiarazen eskutik memoriari buruzko hitzaldia izan zen. Abenduaren 10ean, Jose Mari Satrustegi etorriko da Zaharren Egoitzara, Gabonen inguruan dauden ohi-tura eta sinesmenak kontatzera. Arratsaldeko 6,30etan izango da.

Ipuin kontalaria

Abenduaren 10ean, Kultur etxean, arratsaldeko 6etan, Arrate Leunda ipuin konta-

lariaren jarduna izango da.

Baietz plataformaren diru bilketa

'Egingo dugu' ekimena dela eta, Zaldibiako Baietz plataforma akzioak saltzen ari da herritarren artean. Herrian 100.000 pezetako 30 akzio saltzeko helburuarekin hasi ziren lanean. Hilaren 16rako aurrikuspenak gaititu ziren; dagoeneko 37 akzio salduta baitzeuden. Baietz plataformak proiektu berriaren alde eginiko apustua eskertu nahi die herritarrei.

Sarai Jauregi
Iñaki Gurrutxaga

Arkupe
tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredoiak
Mantak - Mairidireak - Storeak
Toallak - Gortinak eta osagalak

J. M. Barandiaran Plaza

943 88 00 84

ORDIZIA

GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- * Aholkularitza laborala eta fiskala
- * Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

943 88 44 00 - 943 88 12 58

Goierri, 12

ORDIZIA



Zaldizurreta kalea

943 88 45 06

BEASAIN

ORDIZIA

Fantasiatzko eta beldurrezko zinema maratonia

Larunbat gaueko 10etatik goizeko 4rak bitartean fantasiatzko eta beldurrezko 6 filma ikusteko aukera izango da Herri Antzokian. Urtetik urtera, honelako pelikulek zinezaleengan sortzen duen interesa areagotzen dihoala eta, Gaztemaniakok 6 orduko saioa prestatu dute aurtengorako ere.

Maratoia Tinieblas Gonzalez-en 'Por un infante difunto' filma laburrekin hasiko da. Honek Cannesen egiten den Nazioarteko Zinemaldiaren Kritikaren Nazioarteko Astean laburmetraia onenari emandako Canal+ saria jaso du aurten. Ondoren Mark Pavia estatubatuarak zuzendutako 'Stephen King's the night flier' beldurrezko pelikula botako da, jatorrizko bertsioan eta gaztelarazko azpitituluekin. Bertan Dwight Renfield banpiroaren gora-beherak kontatzen dira.

Gaueko 12ak aldera 'How to make love to a woman' Bill Plympton-en filma estatubatuar laburra eskainiko da, hau ere jatorrizko bertsioan baina euskarazko azpitituluekin. Orain 3 urte egindakoa da eta bere garaian sariak jaso zituen. Honen atzetik, autore beraren 'Sex & Violence' sketch laburren katalogo ezin dibertigarriagoa, surreala eta zoroa. Bosgarren filma Sammo Hung-en azken lana, 'Erase una vez en China y America', jatorrizko bertsioan eta gaztelarazko azpitituluekin. Tsu Hark-ek produzitutakoa, Once Upon A Time In China sailaren atal berriak borroka arteetako maisu den Wong Fei-Hung-ek Estatu Batuetan

dituen abenturak kontatzen dizkigu.

Maratoiarekin amaitzeko, goizaldeko 2:15ak aldera Brian Yuznaren 'Progeny' jatorrizko bertsioan eta gaztelarazko azpitituluekin. Brad Dourif eta Lindsay Crouse dira Brian Yuznaren filma honen protagonistak. Gau batez, amodioa egiten duten bitartean, argi urdin misterioitsu batek Craig Barton eta bere emaztea inguratzen ditu. Hurrengo bi orduetan gertatutako ezer ere ez dute gogoratuko, baina bere emaztea haurdun geratuko da eta barruan dararamana ez da gizakia.

Ardo dastaketa

Ardoari eskainitako astea joan zitzaigun eta bertan, hain estimatua den edariaz dastatzeko aukera izatean gain, sari banaketak ere izan ziren. Lehiaketara aurkeztu ziren 14 ardo gazteetatik onena Mainuetako (Baños de Ebro) Luberri upategikoa izan zen epaimahaikoen esanetan. Ardo onduetan edo kariantzetan, berriz, 6 izan ziren lehian aritu ziren ardoak eta azkenik Samaniegoko Ostatur eraman zuen saria. Doroteo Saenz de Samaniegok 'Solar de Mazarredo' 1995ko ardoa aurkeztu zuen. Gai-nontzean, asteen zehar egindako jardunetan jende dexente ibili zen. Eta zer esanik ez, Enparantza Nagusian ipini ziren ardo postuetara.

Asto kaleko festak

Urtero bezala, azaroko erdi partera Elkano kalean jaio-takoek euren festa egiten dute. Aurten ere elkartu ziren guztiontzat ezagunagoa



Hitzaro begiraleen bila

Aurretik aipatu genizuen Hitzaro Euskara Elkarteak ikasurte berriari hasiera emana ziola. Urtetik urtera sendotzen doan elkarte izaki, euren ekintzak eta eginbeharrak ere handituz doaz. Egin berri duten Batzar Orokorrean aurkeztutako 98-99 ikasturterari dagokion plangintzan pisu handia daukate hurrei jolaserako euskarazko espazio bat eskaintzearen antolatzen diren egitasmoak. Hor dago, esaterako, Txikitxaro, larunbat goizetan hainbat haur elkartzea lortzen duen aisialdea. Txirristi Mirristi eta Plisti Plasta udaleku irekiak eta Udalaren Haur Parkea ere aipatu taldeak gestio-natzen ditu. Horiek guztiak aurrera eramateko, ordea, begiraleen lana funtsezkoa da. Hau kontutan hartuz, begiraleen lan poltsa osatzeko deialdia egin du Elkarteak. Izena ematen duten begiraleekin zerrenda osatuko da eta elkarteak dauzkan beharren arabera lan eskaintza egingo zaie horiei. Begirale izateko 18 urtetik gorakoa izan beharko da, goierritarra eta euskalduna. Aipatu lana ordaindua izango dela. Interesaturik dagoenak 943-162366 telefono zenbakira deitu besterik ez du.

Bestalde, euskarazko bideo emanaldien azkeneko saioa bihar izango da Barrenan, arratsaldeko 5etatik aurrera. Oraingorako aukeratutako filma 'Bostak eta irlako altxorra', 3,4 eta 5. mailakoentzat gomendatutakoa. Sarrera 100 pta.

den Asto Klean eta aste-bukaera oparoaz gozatzeko aukera izan zuten. Afaria, bazkaria, haur jolasak, mus-partidak, txisteak... eta nola ez, larunbateko asto lasterketa. Eguna euritsua izan bazen ere jende dexente hurbildu zen eta azkenean Idoia Mendizabalentzat garraipena.

Txotxongilo jaialdia

Abenduan Txotxongilo jaialdia izango dugu Herri Antzokian. Abenduaren 2an, asteazkenean, arratsaldeko 6etan Bartzelonako 'La Fanfarra' taldeak 'Caramente' lana eskainiko du. Hurrengo egunean, berriz, 'Chonchon' talde argentinar-rrak 'Los búfos de la matiné', ordu eta leku berean.

Aitor Calvillo

ZEGAMA

Mitch-ek kaltetutakoentzat dirulaguntzak



Udalaren dirulaguntza

Mitch hurakanaren kalteak larriak direla eta, Udalak, bertako San Martin Parrokiarekin batera dirulaguntza emateko erabakia hartu du. Dirulaguntza Caritasen bidez bideratuko da. Herriarren batek proiektu honek parte hartu nahi badu, jarraian ditu kontu-korrante

zenbakiak: Kutxan 6229/5 eta Euskadiko Kutxan, 9900.0.

San Nikolas

San Nikolas egunean, abenduaren 6an, Aitzuri herri-erretxolako ikasle-irakasleak, usadio zaharrari jarraituz, betiko abestiak kalez kale kantatuko dituzte. Gotzainaren aukeraketa (Aimar Leoz eta Oier Arkonada)

eta ibilbidea ikasleak eurek pentsatutakoa izan da; baita ere, haurrak bildurik, bertan bilduko den dirua nora bidalia izango den eztabaidatu eta erabaki da. Aurtan, Mitch hurakanak kaltetutakoei bidaliko zaie dirua.

Amezti Mendi Elkartearen oharra

Amezti Mendi Elkartek herritar nahiz ingurukoei jakinarazi nahi diote, hemen dik aurrera mendiko federatu txartela Amezti elkartearen ateratzeko aukera izango dela. Bestalde, Amezti Mendi Elkarteak bazkide egin nahi izanez gero, 1999. urteari dagokion kuota 1.000 pezetakoa izango da. Horretarako jar zaitez harremanetan batzordeko kideren batekin, bestela deitu 943 800178 edo 943 801993 telefonoetara.

Egur tailaketa tailerra

Herrian 'Egur taila' tailerra antolatu nahi da. Antolaketarako ikastaro hau egin nahi luketenen zenbatekoa jakitea beharrezkoa dela eta, interesa izanez gero, izena Udaletxean eman beharko da abenduaren 11 bitartean.

Joxe Azurmendi

Azaroaren 11, 12 eta 13an 'Joxe Azurmendi ezagutuz' lemapean zegamar pentsalariaren bizi eta lana ezagutzeko hiru hitzaldi moduko egin ziren. Ekitaldi oparoak izanik, Aitzuri herri-erretxolako 5. mailako ikasleek Joxe elkarrizketatu zuten. Leku arazoa dela eta, hurrengo alean eskainiko dizuegu elkarrizketa osoa.

Maidar Azurmendi

UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA

INFORMAZIOA:

Lanegunetan:

☎ 943 16 21 92

Larunbatetan:

10:00 - 12:00

Altzagako Udaletxean



ALTZAGA

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04

BEASAIN

OSKARBI
OINETAKOAK



Mota guztietako
eta adin guztien-
tzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25

☎ 88 19 44

ORDIZIA



Nafarroa
Etorbidea, 9

EGUZKI
INPRIMATEGIA

☎ 943 88 94 82

BEASAIN



X ENKIEGI
ETXE-AROKINTZA

Diseinuak neurritara

Erakusketako ☎-faksa: 943 889113 - ☎ mugik.: 919 487056
Senpere Merkatalgunea, 25

BEASAIN

**Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak**



1977. urteko ormaiztegiarrak

Zutik, eskubitik ezkerre: Maite Iturralde, Maite, Gorka Holgado, Iker Galabide, Jon Telleria, Aitor Okariz, Jaione Urkiola, Arantxa Mujika (atzealdean), Oihana Iurrita, Bihotza Esnaola, Izaskun Eloseg, Gurutze Esnaola eta Fatima Teran.

Bigarren lerroan: Iñaki Ormazabal, Imanol Olaran, Joanes Murua, Xabier Zumarraga, Iñigo Etxezarreta, Ibon Gorrotxategi, Josu Tolosa, Nuria Saenz, Amaia Tejada eta Pili Bravo.

Lurrean eserita: Maddi Elorza, Ainhoa Aldasoro, Miren Meoki, Iker Aranburu, Amaia Oiarzabal, Nerea Mendizabal, Maialen Zufiria, Leire Ainz eta Alazne Gutierrez.



IRIZAR

GURE ESTRATEGIA:

**BEZEROA
ZERBITZATU ETA
BALIOA ERANTSI**

GURE GILTZARRIAK:

**KALITATEA
ZERBITZUA
KOSTUA
BERRIKUNTZA**



MONDRAGON
CORPORACION COOPERATIVA

Zumarragako bidea 8

ORMAIZTEGI

☎ 943 80 91 00

Faxa: 943 88 91 01



**FELIPE PRINTZEA
SARIA ENPRESA
BIKAINASUNARI**
95 eta 96 urteetan:
- Diseinu Industrialak
(1995)
- Kalitate Industrialak
(1996)



URTEKO
AUTOBUSA
94 URTEAN
BRITAINIA
HANDIAN



URTEKO
AUTOBUSA
95 URTEAN
ESPAINIAN



*Seriotasuna, profesionaltasuna eta aukera ezberdinak
aurkitu nahi badituzu*

ORLEGI

Elikadura Naturala eta Belardenda



**Nafarroa
Etorbidea, 5**

☎ 943 16 21 10

Kale Nagusia, 11

☎ 943 16 21 91

BEASAIN

EGUNEROKO KONTSULTA

MEDIKU ZERBITZU ESPEZIALIZATUA

- Txaro del Teso:
NATUROPATA
- Esteban Rodriguez:
MEDIKUNTZA HOLISTIKOA
- Jesus Huarte: MEDIKUA
(elk. zenb. 3.840)
- Rosa Monge: DIETISTA
- Rufino Murgia:
MASAIARIA
OSTEOPATA
- M^a Jose Gonzalez:
MASAIARIA - AKUPUNTUREA



NOSKI BAIETZ!



bel è n

"Zurte gabonetaiko oparien denda"

Urdaneta Kalea, 24 eta 25

☎ 943 16 22 87

ORDIZIA